

NOLA ZUZENTZEN DITUGU GURE AZTERKETAK?

Aztertzaile fidagarri eta ondo prestatuak

IVAPek ehun bat aztertzaile ditu, den-denak hainbat erakunde eta euskaltegietakoak eta eskarmentu handikoak. Aztertzaile bakoitzak hizkuntza eskakizun jakin bateko azterketak zuzentzen ditu beti, IVAPeko tutoreek ezarritako irizpideen arabera. Urtean zehar hainbat prestakuntza-saio jasotzen dituzte aztertzaileek, zalantzak argitu, iradokizunak egin, eta denen artean zuzenketarako irizpide bateratuak finkatzeko.

Azterketa bakoitza, gutxienez, bi aztertzailek zuzentzen dute beti

Azterketa idatziko proba amaitzen denean, irakurgailu optiko batek zuzentzen ditu irakurmeneko ariketak.

Idazmenari dagozkion ariketak eskaneatu, eta artxibo indibidualetan gordetzen ditugu (artxibo bat, azterketari bakoitzeko). Artxibo horietako bakoitza bi aztertzaile banoitzen zaie, eta nor bere kasa zuzentzen du, betiere jakin gabe nor ari den zuzentzen artxibo horretako idazlanak aldi berean. Aztertzaileek nota jartzen dutenean, guri bidaltzen digute, eta aplikazio informatiko batean sartzen dugu.

Zuzenketarako irizpideak zehatzak izan arren, litekeena da bi aztertzaileek jarritako noten artean desadostasun garbia egotea. Hori gertatzen denean, hirugarren aztertzaile batek zuzentzen du, aurreko bien emaitzak zein diren ezagutu barik, jakina. Gainera, epaimahaiko kideek ere azterketa jakin batzuk zuzentzeko eska dezakete; hortaz, ez da harrizkeoa azterketa bera lau lagunek zuzentzea.

